ARTEA ▸

Ruiz de Eginoren erakusketa zabalduko dute

Aitor Ruiz de Egino artista donostiarraren eskulturak eta margoak Barrena kultur etxean egongo dira ikusgai, gaurtik hasi eta ekainaren 23ra arte. Erakusketak ohiko ordutegia izango du: astelehenetik larunbatera, arratsaldeko seietatik zortzietara. Erakusketak gaur zabalduko ditu ateak, 19:00etan. Irekiera ekitaldian Roberto Yab gitarra joleak parte hartuko du. .

FUTBOLA ▸

Downton dago sailkapenean lidertzan

Koadrilen arteko futbol txapelketan Down taldea dago lehenengo postuan (26 p), E.R. Matxaini asteburuan 2 eta 0 irabazita. Bigarren lekuan Bustunmira (25) taldea dago eta hirugarren lekuan Bekause (23) dago .

PILOTA ▸

Pala motzeko finala jokatuko dute larunbatean

Larunbatean, 12:00etan, Beti Alain Euskal Herriko Pala Motzeko Txapelketako finala jokatuko dute. Modu honetan, atzerapen nabarmenarekin, polemikaz inguratuta egon den txapelketari amaiera emango zaio. Finalean Oianguko Berasategi-Andonegi eta Sestaoko Basabe-Fernando bikoteek jokatuko dute. Adurtza eta Zidorra talde gasteiztarrek txapelketa uztea erabaki zuten, «bidegabekeriak» gertatu zirela esanez eta Pilota Federazioaren aurkako salaketa gogorrak eginez. Txapelketa geratuta egon da.

GIZARTEA ▸

Udalari proiektua gelditzeko eskatuko diote Oiangu Egunean

Larunbatean irteera antolatu du Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak, kontzesioa bertan behera uzteko aldarrikatuz

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Eguna ospatuko dute larunbatean. Hainbat ekitaldi egingo dituzte Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak deituta. Helburua Udalari parkeko proiektua (golfa, *paintball-a,...)* gelditzeko eskatzea da, eta horrekin batera herritarren artean eztabaida bultzatu nahi dute gaiaren inguruan.

Ordiziako Udalak 2005eko otsailean onartu zuen Oianguren Aisiguneko proiektua. Egitasmoa une honetan gelditua dago, Plan Berezia eta Ingurumen Inpaktuaren txostena noiz kaleratuko zain. Ikena enpresa ari da egiten txostena.

Oiangu Egunean, iaz, bisita gidatua egin zuten. MAIDER DEL OLMO

Oiangu Eguna

Larunbatean, Oiangu Egunean, goizeko hamarretan oinez abiatuko dira parkera, plazatik aterata. Goian, bisita gidatua egingo dute, eta ondoren eguerdian hamaiketakoa egiteko bilduko dira denak elkarrekin. Ondoren, 12:30ean, prentsaurrekoa eskainiko dute Oiangun bertan, hilaren 9an Ordizian ospatuko den manifestaziorako deialdia egiteko. Arratsaldeko 19:30ean izango da manifestazioa ekainaren 9an. Manifestazioaren leloa hau izango da: *Oiangu publikoa eta Bizirik, Oiangun golfik ez, eta Oianguko pribatizazioari ez.*

Plataformaren arabera, «Udalari eskatzen diogu Oiangu parkearen ustiaketarako onartu duen kontzesioa eta proiektua bertan behera utz dezala. Horrekin batera herriko eragile guztiekin batera Oiangu babestuko duen eta Oianguz inolako bazterketarik gabe, modu publiko eta arduratsuan, disfrutatzeko aukera emango digun egitasmo berri bat prestatzeko eta burutzeko elkarlana nahi dugu».

Plataformak azaldu duenez, proiektuak parkearen erabilera publikoa, librea eta doakoa «murrizten» egiten du, «pribatizazioa» suposatuz.

Parkearen oreka ekologikoan eta aberastasunean «eragin larria» edukiko duela salatu dute: «Halako ondorioak dituen egitasmoa ordiziarron inolako parte-hartzerik gabe erabaki da, nahiz eta Udalak herritarron partaidetzan oinarritzen den Tokiko Agenda 21 konpromisoak sinatuta dituen».

Kontzesio prozesua Udalak «era irregularrean eta ilegalean» egin duela azaldu dute, eta Arartekoak esandakoak ekarri dituzte gogora. Aurtengo otsailean Arartekoak Ordiziako Udalari kontzesioa baliogabetzeko eskakizuna egin zion.

Bestalde, Oiangun obrak oraindik ez dituzte hasi, Plan Berezia eta Ingurumen Inpaktuaren txostena falta delako Ikena. Plataformaren ustez, enpresa horrek ez baizik Udalak egin beharko zukeen txostena. Txosten horietan azaltzen den informazioa «ukatu» egiten zaiela ere salatu dute.

Ingurumen Inpaktuaren Txostena eta Plan Berezia kaleratzen direnean Udalak onespena eman beharko dio, egitasmoak aurrera jarrai dezan. Ondoren, Foru Aldundiak argi berdea ematen badio hilabeteko epea izango da alegazioak aurkezteko.

Plataformak dei egin diete herritarrei antolatutako ekimenetan parte hartzera.

EKITALDIAK ▸

Hauek dira hurrengo egunetarako prestatu dituzten ekimenak.

LARUNBATA
10:00. Oiangura irteera, plazatik. Parkean bisita gidatua egingo dute
12:00. Hamaiketakoa.
12:30. Prentsaurrekoa.

EKAINAK 9
19:30. Manifestazioa Ordizian.

Kontzentrazioa. A. APALATEGI

goierriko hitza
Harpidedunen txokoa

HITZAk harpidedunen artean,
Kilometroak 2006 dendetan erabiltzeko
30 €-ko 2 erosketa txartel zozketatuko ditu

ZORTE ON!!

Denda ibiltaria:
Ekainaren 3an Legazpin
Ekainaren 17an Ordizian
Ekainaren 18-24-25ean Seguran

Denda finkoa:
Oiartzun eta Errenterian

iragarki laburrak ▸

SALGAI
Autoa. Mercedes Vito 112 CDI. 2003. urtekoa. Oso egoera onean eta prestatua. 653 747 989.

ALOKAIRUAN
Jacan. Apatamentua alokatzen da, igerilekuarekin, uztail osoan eta abuztuaren 15etik 31ra bitartean. 676 615 361.